

Mallabitik Santiagora



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 193. alea 2011ko iraila

Ume eta gazteentzako
zapata-denda berria ERMUAN...



Arinka

Orbe Kardinalaren plaza 8, behea
ERMUA - Bizkaia
943 17 41 26

lankidetzaz
elkarlana

Debabarrena gara

gurebalioak
DEBABARRENA

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibariaga eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Azagirre.

LAGUNTZAILEAK:

Koldo Aranberria,
Leire Elustondo,
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Valentín Mugarza, Nora Mateos, Ainara Riveras eta Udal Liburutegia.

ARGAZKIAK:

Artarral MT, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Klemen Corredera, Eider Gisasola, Asier Ibaibariaga, Valentín Mugarza, Hiart Redondo, Udal Liburutegia, Dorleta Vidal eta Iosu Yarza.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.250 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

GURITA TXITXIA Bisbita común *Anthus pratensis*



Bere kolore marroixkan, bere itxura nolabait arruntean, apatzak deigarri: gorri-gorriak ditu. Udaberri eta udan bere lur esparrua markatzen du kantu berezi batekin, kantuan doala oraintxe gorantz hegan eginez, oraintxe beheranzko norabidean, parakaidas baten joango balitz bezala lurre-ratuz. Bertan, lurrean ematen du denbora gehien, intsektu eta armiarma bila; habia ere lurzoruan egiten du sarri askotan. Landa eta soloetan bizi bada ere, neguan ur ingurura hurreratzea gustatzen zaio. Ez da ugaria eta gure artean ibili bai, baina gutxitan ikusten da; ni neuk ere behinekoa daukat akorduan: mutikotxoa nintzela, Arteta ermintxa inguruan neu eta ze modu bitxian hegan egiten zuen begira egon nintzela dut gogoan.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4 P.A.M.	BOTEPRONTOAN 15 Fernando Aldalur
ELKARRIZKETA5-7 Jol Gisasola	KIROLZALE 16-17 Mallabitik Santiagora
MALLABIAN ZER?8-9 Josefa Pagaegi	IRITZIA 18 Trena berriz ere martxan jartzen denean
ERREPORTAJEA.. 10-11 Hiart Redondo eta Eider Gisasola	SALEROSKETAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13 Helduen irakurketa kluba	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14 Eskerrik asko txikizale!	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22 Urriko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

P.A.M.

1 Sorrera. 2000. urtearen bueltan.

2 Izena. Talde kide batzuk Dantzut eta Julio Kagetan jo izan dugu eta, egia esan, beti izan gara nahiko txarrak izenak ipintzen. 'PAM' izena taldekide baten esperientzia pertsonalean dago oinarrituta. Horrez gain, itzelezko gaitasuna dugu matematiketan! Gainera, sigla hauek joko handia ematen dute gure bide ganberroa jorrazteko eta guk beti lotu izan dugu rocka dibertimenduari.

3 Kideak. Lau gara: 2 gitarra (Carlos Balseiro eta Iker Saenz de Zaitegi), baxua (Markos Gimeno) eta bateria (Juanmi Bravo). Bateria ezik, beste denek egiten dute ahots lana.

4 Estiloa. Rock & Roll-a eremu zabalenean.

5 Abestiak. Guk sortutakoak dira, nahiz eta gure errepertorioan beste talde batzuen 4 edo 5 bertsio dauden. Hiru abeslariak sortzen dituzte abestiak, eta gaiak ba-



Argazkia: Klemen Corredera

koitzaren izaeraren araberakoak izaten dira.

6 Entseguak. Urte dezente Mallabiko Osma auzoko lokal batean eman eta gero, Eibarko Legarre auzoan entseatzen dugu orain. Ikerrek Kokein talde eibartarrean ere jotzen du eta eurekin konpartitzen dugu lokala. Astean behin entseatzen dugu normalean, opor luzeak hartuta.

7 Azken kontzertua? Aurtengo San Juan jaietan, Eibarren.

8 Hurrengoa? Norbaitek deitzen digunean.

9 Diskorik, maketarik... Lau disko kaleratu ditugu (2002an, 2004an, 2006an eta 2009an) eta gurekin kontaktuan ipintzea da erosteko biderik errazena. Gainera gure webgunean abestiak doan bajatzeko aukera dago. Zoritxarrez, gure herrian egon den talderik oparoenara gara, bai disko eta bai ibilbideari dagokionez.

10 Kontakua. www.putoamoakmatematiketan.net webgunean, putoamoakmatematiketan@gmail.com helbide elektronikoan edota 665 709 115 telefono zenbakian (Markos). Gainera, myspace.com/putoamoakmatematiketan edo twitter.com/zatilau.

Dorleta Vidal

san antonio OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDO CERYECERIA
NHEV

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



Jol Gisasola, Alhondigako Bezeroaren Arretarako koordinatzailea:

“Ez da New Yorkera joan behar horrelako leku ikusgarriaz gozatzeko”

lazko maiatzean zabaldu zen Alhóndiga Bilbao eta ia urte t'erdiko ibilbide honetan ermuar bat izan du bezeroaren arretarako arduradun, Jol Gisasola. Zuzenbidean lizentziatua, aspaldidanik dabil Jol jendearen arreta alorrean lanean, izan ere 9 urte eman zituen zeregin horietan Eroskin. Philippe Starckek diseinatu duen 40.000 metro karratuko zabalera duen eraikinaren informazioaren arduraduna izateak berehala erakarri zuen: “Erronka zen niretzat eta proiektuan hasieratik egoteak lana neure erara moldatzen utzi dit. Leku handietan, bakar baten iritziak ez du pisu handirik baina hemen norberaren izaera eta erabakiak oso kontuan hartzen dira. Oso gustura nago”.

- Zein da zure egunerokoa AlhóndigaBilbaon?

Eraikinean sartzeraoan Kulturen Atariaren erdian kristalezko kubo bat ikus daiteke, Infopuntua; bisitariek eta erabiltzaileek bertara jo behar dute edozein zalantza izanez gero, bazkide izateko, ikuskizunetarako sarrerak erosteko eta kirol-ekintzetan izena emateko, besteak beste. 7etatik 23etara edo 8.30etik 24etara bitartean dago zabalik Infopuntua, 365 egunetan. AlhóndigaBilbao oso handia da eta ekintza mordo bat burutzen dira bertan etengabe. Hori dela eta, Infopuntuan lan egiten duen jendea formatzera dedikatzen dut nire 8 orduko jardunaldiaren zati handi bat: burutzen diren ekintza eta ditugun zerbitzu guzti-guztiei buruz informazioa era egokienean ematen jakin dezaten. Horixe da nire ardura. Kontutan izan behar da informazio hori egunero aldatzen dela. Bisita gidatuak antolatzea ere nire zereginen artean dago.

- Eta gainontzeko orduak zertan ematen dituzu?

Informazioa eskaintzen duten pertsona kopurua egokia dela ziurtatu behar dut uneoro, eskaeraren arabera: ez gehiegi ezta gutxiegi ere. Era berean, gure bezeroek barne eta kanpoko ekintzak antolatzen dituztenean gure zerbitzuak eskatzen dituzte batzuetan (harrera egiteko,



Jol Gisasola AlhóndigaBilbaoko sarreran

edota aretozain eta arropazaindegian egoteko), eta langile horiek kudeatzea nire ardura da baita ere.

- Lan neketsua da?

Erreza eman dezakeen arren, zoramena da!

- Eta zer harreman du lan honek zuzenbidearekin?

Bat ere ez, baina egia esan ez dago formazio zehatzik lan honetarako. Izaera kontua da, jendearekin harremana izatea gustuko izan behar duzu eta zure lana ahalik eta hoberen egin nahi izatea beharrezkoa da.

- Kexa asko egoten da?

Geroz eta gutxiago egotea espero dugu. Bezeroek edo

erabiltzaileek egindako iradokizunak edo kexak kudeatzea ere gure betebeharren artean dago. Horrek ere lan handia ematen du, kexak erregistratu eta behar bezalako erantzuna eman behar zaielako. Arkitektonikoki erreferentea izateaz gain, AlhóndigaBilbaon burutzen diren ekintzak eta langileek ematen duten zerbitzua ere bikaina izatea nahi dugu.

- Zer nolako kexak jasotzen dituzue?

Hasieran jendeak argi gutxi zegoela esaten zuen, seinalizazioa ez zela egokia... Horiek hobetzen saiatu gara, baina kontuan izan behar da eraikuntza berezia dela eta aurreiritziak baztertu behar direla: kiroldegia eta liburutegia ez dira ohikoak, ez, eta jendeak ohitu egin behar du. Hain eraikin berezian gauza normalak egin

ahal izatea (kirola, esaterako), estimatu beharreko gauza dela uste dut.

- Jendea oso zorrotza da?

Kontua zera da: jendeak itxaropen handiak zituela gurekin. Zortzi urte igaro ziren obrak hasi zirenetik inauguratu arte, eraikinaren berezitasunak eta ustekabeko arazoak medio, ezin izan zirelako lanen epeak errespetatu.

- Zeintzuk dira eraikinak dituen berezitasun horiek?

Ricardo Bastida arkitektoak 1909. urtean sortu zuen eraikin hau, hala nola Doña Casilda parkea. Alhóndiga porlanez egindako Bilboko bigarren eraikina izan zela uste dut. Philippe Starckek proiektua bere gain hartu zuenean erronka moduan hartu zuen lana, kanpoko egitura mantentzea derrigorrezkoa zelako. Barruan 3 eraikin independente daude eta Starckek

“Hain eraikin berezian gauza ‘normalak’ egin ahal izatea estimatu beharreko gauza da”

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

detaile guzti guztiak gainbegiratu zituen. Gaur egun ere, argi bat aldatzeko, lekuaren arabera, baimena eskatu behar zaio. Hiru eraikin hauek eusten 43 zutabe daude, denak ezberdinak, 800 zirriborroren artean aukeratutakoak. Horietako 4 Eibarko Alfa Artek egin zituen. Bulegoak, bilera gelak, jatetxeko sukaldaria... dena da kristalezkoa, ezin da ezer ezkutatu, leku bizia da, bizitzaz beterikoa! Eta espazio zabal handiak daude, Philippe Starckek esaten zuenez "hemen hutsunek, leku beteek baino pisu handiagoa dute".

- **Alhóndiga Bilbao zabaldu zenetik zaude lanean?**

Egia esan, zabaldu baino lehenago hasi nintzen lanean, 2009ko urrian. Leheneengo langileak, zabaldu baino hiru urte lehenago hasi ziren.

- **Zein lan egin zenuen zabaldu arte?**

Gauza mordoia zegoen egiteko. Hiru hilabete lehenago bulego bat ipini zen Bilbon, esaterako: eraikuntza eta obrei buruzko informazioa ematen genuen eta ordenagailuz egindako maketak eta argazki zaharrak erakutsi, besteak beste.

"Inaugurazioa zoramena izan zen! 25.000 lagun etortzen ziren egunean"

- **Zer nolako harrera izan zuen bulego horrek?**

Zabaldu baino 2 ordu lehenago 200 lagun inguru zegoen zain. Zoramena izan zen!

- **Eta nola gogoratzen duzu eraikinaren inaugurazioa?**

Demaseko zoramena! 20.000 edo 25.000 lagun etortzen ziren egunean. Batzuk merkataritza zentroa

zela uste zuten eta gehienek ez zekiten zertarako zetozen: eraikina ikusi, txartela atera, ordutegiei buruzko informazioa eskatu...

- **Hasiera horretan zenbat jende izan zenuen zure ardurapean?**

Eraikinean informazioa eskaintzen 30 edo 40 lagun inguru zegoen. Horrez gain, beste langile batzuen lana bideratu behar nuen.

- **Bisitarien artean ermurririk ikusi izan duzu Alhóndiga Bilbaon?**

Bai, asko. Emakumearen Sustapeneko Zentroko ikasleek bisita gidatua egin zuten, esaterako. Eta norbanaok ere ikusi izan ditut. Ez da New Yorkera joan behar horrelako lekua ikusi eta gozatzeko eta, Bilbo hain gertu izanda, bisitatu beharreko gunea dela uste dut: bisitatu, zinera joan, bazkaldu, kafea hartu, ikastaroak egin, kirola, mediateka, erakusketak, dantza... amaigabeko aukera zerrenda dago.

Dorleta Vidal



Eraikineko terrazan

ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Descubre-té

- **Teak eta kafeak.** Jatorrizkoak eta aromatizatuak.
- **Belgiako txokolata.**
- **Osagarriak:** teontziak, katiluak, infusoreak...
- **Eguneko tea dastagarri dugu.**
- **Oparitzeko neurrira egindako poltsak.**

Probaleku 4 bis, behea - Ermua
943 03 15 81 / descubre-te@hotmail.com

Ferreteria / Burdindegia



- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es



optika

itze

- ✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
- ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Iratxe Uribelarrea eta Andere Astigarra, Alemanian euskal musika irakasten

Iratxe Uribelarrea eta Andere Astigarra uztailearen 29tik abuztuaren 7re Alemaniako Knull eskualdian antolatutako 'Sommer musik fest' musika jaialdixen izen zien. "Parte hartzaile danak Alemaniarrak edo bertan finkatutakuek izen arren, munduko musika eta dantza ezberdinen topalekue izen da jaialdi hau. Gu izen ga gonbidatu bakarrak, euskal musikan ordezkari moduen juen gaienak".

Trikitixa eta panderue jotera juen die eurok, txalaparta, alboka, txistu, dulzaina, txirula, biola jole eta bi dantzarekin batera. "Euskal musikaren pupurri bat izen gara", diñue neskek. "Musikie eta dantzak irakatsi eta ikasteko jaialdi bat izen da, ta gu beste ikastaro batzutan egon

gaien moduen, jentie euskal kantuek, txalapartie eta dantzak ikestera hurbiltzen zan goizero gugana".

Goiz eta arratsalde, 77 ikastaro horien artien serra jotzie, afrikar dantzak, kubatar musikie, dantza irlandarrrak... izeten zien eta zazpi-retatik aurrera kontzertuek. "Emanaldixetarako erreper-

torixue preparau gendun eta bi erromerixa dantzatzeko, eta esplikaziño ta guztiko audiziño bat eskeiñi genduen".

Eguneko ordu danak musika inguratute egon ei zien: "Kontzertuen ostien be Tea-House deitzen geuntzen pub tipoko karpa baten batzen giñen danok, eta inprobisaziño eta dantza artien argi-

tu be ein jakun baten baino gehixautan! Jente asko eza-gutzeko aukerie euki dogu, asko ikesi eta gure arteko harremana sendotzeko be balio izen dau", diñue.

Errepikatuko leukien gal-detute, gonbidapen barik eta euren konture izenda be, gustora juengo ziela barriro argi dauke.



Josefa Pagaegik 100 urte bete dittu!



Josefa Pagaegi Baskaraneke ehun urte bete dittu irailaren 7xen eta familia eta lagunekin batera, Mallabiko Goita auzoko elkartien bazkari batez ospatu dabe urteurrena.

Josefa 1911ko irailaren 7xen jaiotzen Barinan, Iturreta auzoko Barandiku baserrixen. 30 urterekin Artetan ezkondu zan Jose Benito Gisolakin eta Urkixa baserrira etorri zan bizitzera.

Azken urtietan Durangoko Orozketa auzoan bizi da alabekin batera.

Zorionak Josefa!

IZOTZ
IZOZTUAK



ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA




- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

PELOTA ETA PALA TXAPELKETA ELIZPIEN


Martxan dau Mallabiko elizpeko txapelketa. Bi modalidade izengo die, mutilek eskuz jokatuko dabe eta neskek paletan. Urriaren 10era arte egon da izena emoteko epie zabalik eta 6 bikote mutiletan eta 3 bikote nesketan apuntatu die. Barixeku arratsaldietan jokatuko die partiduek, arratsaldero hiru partidu eta danek danen kontra jokatu ondoren, Urriko jaixetako barixekuen (urrixan 28xen) izengo da finala.

BADATZ URRIKO JAIXEK

2011ko Urriko jaixek be hurbilduez doiez, eta egitarau osue zehazteke dauen arren, konfirmaute dauz zapatu gabeko kontzertuek. Urrixan 29xen eta 22.00etatik aurrera 'Zain' berriztarrak, 'Gatibu', 'Kop' kataluniarrak eta 'Esne Beltza' izengo die ikusgai Mallabiko parkien. Inok egitarauan inguruen apartazinoren bat ein gure badau, jakin horretarako batzarrak martxan dauezela.

ITURRIXEN IBILBIDIE

Urrixan 1ien izengo da Mallabiko iturrixek ezagutzeko Orraitio euskara elkartiek antolatzen daben ibilaldixe. 9.30ean batuko die Trabakun eta ondorengo ibilbidie jarraituko dabe: Trabakutik Sahietsanera jungo die, handik Egire eta Izartzara. Hamendik Arandoño auzora igoko dabe, gero Arteta, Iturrua eta Asuntzetik jarraitzeko. Berano Txikin Boluetara jungo die gero eta Marduen amaittuko da ibilbidie. Honen ondoren 12 euron truke babajana izengo da Artixeko sozidadien. Bazkarireko aurrez izena emotie komeni da, horretarako Mallabiko tabernetan emon izena edo Pello Mugarzakin harremanetan jarritte (652752468 telefonoan).



2011-2012 IKASTURTEKO IKASTAROAK

Ikasturte hasierarekin batera, herrixen hainbat ikastaro antolatu die; hala nola, soinu eta pandero ikastarue, txalaparta ikastarue, abesbatza gazte zein helduentzat, yoga ikastarue, umeentzako euskal dantzak, plazako dantza tradizionala, argazkigintza ikastarue, mantentzeko gimnasia, spinninga, Kzguneko ikastaruek eta AEK-k gurasoentzako antolatzen dittuen euskara ikastaruek. Honen inguruko informaziño gehixau nahi izanez gero, jo Kultur Etxera.

EUSKAL HERRIKO

I. MENDI DUATLOI ZIRKUITUE MALLABIXEN

Mendi duatloi zirkuitue 7 herritten egingo da. Mallabiko hainbat gazte boluntarixoren ekimenez, azaroaren 27xen egingo da Mallabiko I. Mendi duatloie, Euskal Herriko zirkuituko azken frogie izengo da gurie. Holan, Mallabiko frogie Euskal Herriko zirkuitureko puntuagarrixie izengo da. Nahiz eta ondiñok gauza asko zehaztu barik egon, egunek aurrera egin ahala, informaziño gehixa eukiko dozue www.mendiduatloia.com helbidien.

EKAINAN 17XE, ESKOLAKO ATE IREKI JARDUNALDIXE

Lehenengoz aurten ospatu dabe Mallabiko Learreta-Markina eskolan datorren ikasturtera begire eskolako partaide izengo dieneztako ate ireki jardunaldixe. Eskolako instalaziñuek ikusteko aukerie izen eben eta bide batez harremanak egitteko be bai. Datorren ikasturterako 12 matrikula barri egin die eta Lehen Hezkuntzako ikasketak amaittu, eta Berrizko Institutura juengo dienak ikesten, 7 ikaste die. Aurten 88 haur izen dittue eskolan, 44 Haur Hezkuntzan eta 44 Lehen Hezkuntzan. Azken urtietan ikasle kopurue handitzen doie eta, hau dala eta, egokitzapenak egitteko lanak egingo dittue uda sasoi.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

MUGA **KIKLOK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(astartetan Itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Psikologak Perun

Psikologian lizentziatu berri diren Hiart Redondo ermuarrak eta Eider Gisasola mallabitarrak 4 hilabete igaro dituzte Perun, ikasketetako praktikak egiten. Gobernu Kanpoko Erakunde baten bitartez garapen-lankidetzarako proiektu batean murgildu ziren eta euren lana, 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei eskola laguntza ematea izan da. Hala ere, bidaiak aukera mordoa eskaini die bidean eta horiek aprobetxatzen jakin izan dute.

Otsailaren 23an hasi zen Hiart eta Eiderren bidaia Peruko El Muyo herrixkako 'Casa-Hogar Amazonas'era. El Muyoko ikasleek 'etxe' honetan ematen dute astea astelehenetik ostiralera, Ama-

zonian barrena egonda, 3 eta 7 ordu arteko ibilaldiak egin behar izaten dituztela-ko bestela eskolara joan ahal izateko. Otsailetik ekainaren bukaerara arte, Hiart eta Eider izan zituzten bertan, etxeko lanak egiten eta ikas-



ten laguntzen. Baina 23 urteko gazte bi hauek gehiago eman nahi izan zuten eta umeen eskolan lan egitea eskatu zuten eta baita baime-na lortu ere.

Lehen Hezkuntzako umeekin eskola, ikasketa edota jokabide arazoak lantzen hasi ziren eta Bigarren Hezkuntzakoekin hainbat gairi buruz berba egiteko tailer-rrak egin zituzten. *"Umeek oso ondo erantzun zuten eta eskolan ez ziguten inongo trabarik ipini. Lasai asko hitz egin genezakeen denok diote. Eskola erlijiosoa izanda, sexuari buruz berba egitea, esaterako, arraroa egiten zitzaigun eta gazte-ek ere ez zekiten horri buruz berba egin ahal zuten edo ez, baina gero lotsa guztiak galdu zituzten! Inork ez die horri buruz ber-*

ba egiten, ez eskolan ezta euren etxeetan ere".

Beste zeregin batzuetan, berriz, hemengoak baino helduagoak dira bertako umeak. Txikitatik etxeko lanak egiten dituzte inor atzetik egon barik, euren arropa eskuz garbitzen dute eta asteburuetan euren etxeetara joaten ez direnek, ortuan lan egiten dutela diote Eiderrek eta Hiartek.

Familiek 40 sol (10 euro inguru) ordaindu behar dituzte hilean umeak Casa-Hogarren bizi ahal izateko eta hauek baldintza batzuk bete behar dituzte. *"Ezin dute euren artean maitasun-harremanik izan eta gutxiene-ko batez besteko nota lortu behar dute ikasturte bukaeran".* Hala ere, poz-pozik bueltatzen dira umeak domekero Casa-Hogarrera:



MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

“Bertan gosaldu, bazkaldu eta afaldu egiten dute, ordutegia dute, oheak, logelak, lagunak..., euren etxetan gela bat egoten da dezentzako, sukaldea, komuna eta listo! Baina hori bai, sekulako Samsung telebistak zeuden etxe guztietan!”.

Gazterik ez

Casa-Hogar honen helburua umeak unibertsitatera bideratzea da; bertako diziplina eta ezarritako errutinei esker askok unibertsitate publikoetan ikasteko aukera izaten dute. Besteak, diru eza dela eta, aitarekin lana egiten geratu behar dira. “Perun ez dago gazterik,

umeak edo helduak dira -diote-. Eta gazteek denbora librean dutenean ez dakite zer egin. Ez dago eurentzako ezer, ez plazarik, ez elkarrekin biltzeko lekuri...”. Horregatik, ‘kantinetara’ jotzen dute askok. “Gizonez beteak egoten dira normalean eta tabernari emakumeak, zerbitzatzeaz gain, beselako lanak egiten dituzte..., matxismo handia dago”, azpimarratzen dute.

Gizartean aldaketa nabarmenak egon beharko lirakeela diote. “Umeek segituan ikasten dute zuk esandakoa, baina eskolatik irten eta kalean ikusten du-

“Uste baino pazientzia gehiago dugula ikasi dugu bidaia honetan”

tena ikasitakoaren kontra bada... ez goaz inora! Penagarria d -aitortzen dute.- Gainera, eskolako jaientan alkohola saltzen da eta umeek euren aitak mozkortuta ikusten dituzte. SozIALIZATZEKO ERA DA. Emakumeek jende-aurrean edatea, berri, ez dago ondo ikusita”.

Zopa eta arroza

Zurgintza edo eskulanean ikastaroez gain, Casa-Hogarren animaliak ere badituzte eta astean behin umeek hauen zaintzaren ardura dute. Eta animali horiei esker, noizean behin okela jaten dute (eurak bertan egonda txerria hil zuteanean, esaterako).

Izan ere, neska hauen elikadura hilabete horietan arrozean oinarrituz, dilistak, entsalada eta patatak noizean behin tartekatuz. “Zopa eta arroz zuria bazkaldu eta afaltzen genuen egu-

nero... azkenean okela eta arrainarekin amets egiten genuen!”, diote. Honez gain, astean behin kostaldetik ekarritako arraina jaten zuten, baina erretzeraino frijitzen zuten, ez zuten larregi disfrutatzen.

Konfiantza

Bidaiatzeko egun batzuk izan zituzten baita ere, eta Amazonas, Quito, Machu Pichu eta Cuzco bisitatu zituzten, hala nola ia hutsik zeuden hondartza erraldoiak.

Errepikatze bidaia izan dela diote eta zer ikasi duten galdetzerakoan hauxe diote barrezka: “*eltxo mordo dagoela! Horrez gain, uste baino pazientzia handiagoa dugula*”. “*Neure burua ezagutzen nuela uste nuen -dio Hiartek-baina ez nekien noraino heldu nintekeen. Triste egongo nintzela uste nuen, baina eusteko gai naizela ikusi dut. Uste baino gogorragoa*”. “*Konfiantza izaten ikasten da baita ere -Eiderrek-. Lortu nahi duzuna zure esku dago... Gainera, elkarrekin oso ondo moldatu gara: hori abantaila handia izan da!*”.

Dorleta Vidal




komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta
Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

 san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoak!

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Asteleheneretik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

POSTAL LEHIAKETAKO SARI BANAKETA, URRIAREN 8AN

Urriaren 8an, larunbata, 12.00etan, aurtengo Postal Lehiaketaren sari banaketa egingo da Lobianon. Asteburu-pasa landetxe batean izango da lehenengo saria; bigarrena, egun pasa Spa batean eta hirugarrena, afari bat Mendiola jatetxean. Sari guztiak bi lagunentzako dira.

ANTZOKIKO SARRERAK EROSTEKO BIDE BERRIAK

Irailaren 14tik aurrera, lau bide ezberdin daude Ermua Antzokian egiten diren emanaldietarako sarrerak erosteko: Lobianon (astelehenetik ostiralera 09.00etatik 15.00etara), BBKko orotariko kutxazainetan, BBKko telefonoan eta BBKko webgunean. BBKren bitartez erosten den sarrera bakoitzaren prezioari komisioa gehitu behar zaio (+0,60 euro BBKko txartelarekin erosten bada eta +0,90 euro beste entitateko txartelarekin). Gainera, orain arte bezala, Antzokian bertan egongo dira sarrerak salgai, ikuskizunak hasi baino ordu-bete edo 45 minutu lehenago, emanaldi motaren arabera.

Streetwings-ek 'VI Folkez Blai' lehiaketa irabazi du


Madrilgo Streetwings taldeak jaso zuen lehen saria (3.000 euro) eta Andaluziako La Banda Moriscak bigarren saria eskuratu zuen (1.500 euro) irailaren 9 eta 11 bitartean burutu zen Ermuko folk lehiaketako finalean. Saria jaso zuten taldeez gain, Tundra errioxarrek, Adarrots bizkaitarrek, Lulavai galiziarrek eta Extremadurako Scath-ek parte hartu zuten finalean. Lehiaketatik kanpo, berriz, Kataluniako Las Migas, Ermuko Adunia eta iazko irabazlea den La Camerata Cervantina taldeek errezitaldia eskaini zuten. Ermuko Udaleko Kultura Sailak eta herriko folk taldeek antolatzen duten lehiaketa honetan, folk musika tresnen tailerrak egon dira aurten berrikuntza moduan.

Amnistia Eguna ospatu zen uztailean Ermuan

120 lagunek hartu zuten parte Amnistia eguna ospatzeko uztailearen 23an burutu zen bazkari herrikoian. Ainhoa Luzek horrela azaldu digu han bizitakoaren tarte bat: "...Bazkari eder baten bueltan (euskaldunen gisa) Xabat Galletebetia eta Beñat Ugartetxea izan genituen bertsotan; itzalak... ez zuten inor beraien ikusmiratik kanpo utzi, bete-betean bertsoz tirokatzen zuten aurrean zein aldamenean aurkitzen zuten inor. Bapo bazkaldu, edan, barreak... irrirtzi lehiaketa xelebrea, txalapartari inprobisatuak... dena testuinguru baten barne: elkartasuna".

Helduen irakurketa klubean izena emateko epea zabalik

Ermuko Udal Liburutegiak helduen euskarazko irakurketa kluba eskainiko du aurten ere. Iaz bezala, taldea 15 edo 20 lagunez osatuta egongo da eta saio bakoitzean parte hartu baino lehen, proposatutako liburua irakurri beharko dute partaideek. Saioetan, irakurritakoa komentatu, iritziak eman, irakurketan bizitakoa adierazi eta liburuaz, bertan jorratutako gaiaz eta idazleaz hitz egingo da, topaketa horiek ikasteko eta sozializatzeko gune bihurtuz. Euskarazko irakurketa kluba hilaren lehen astelehenetan bilduko da, 19.30etik 21.00era, Lobiano Kulturagunean. Ekimen hau doakoa den arren, aldeztu aurretik izena ematea eskatzen da, partaide kopurua mugatua delako. Udal Liburutegira jo, 943179212 telefonora deitu edo biblioteca@udalermua.net helbidera mezua bidali beharko dute interesa dutenek. Lehenengo saioa urriaren 3an izango da eta Xabier Mendigurenen 'Sakoneta' liburuaz mintzatuko dira.



IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen




TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Lau Haizetara argazki lehiaketaren sariak banatu dira



Itziar Chaverrek eta Iraide Sanzek lortu dute lehen eta bigarren saria, hurrenez hurren Artarrai Mendi Taldeak antolatzen duen Lau Haizetara argazki lehiaketan. Itziarrek Islandiako Land-Hraftinuskeren ateratako argazkia bidali zuen eta "mendiko paisajea nabarmena" izateagatik lortu du saria, antolatzaileen esanetan. Honi esker 70 euro mendirako materialean jaso du. Iraidek, berriz, AEBko Utah-Arizonako Monument Valley-n egindako argazkiak zuen originaltasunari esker lortu du bigarren saria (50 euro mendiko materialean). Lehiaketaren

3. edizio honetara, mendizaletasunarekin zerikusia duten 71 argazki aurkeztu dira, munduko hainbat lekutan ateratakoak: Korsikan, Eslovenian, Mongolian edota Piriniotan, besteak beste. Gainera, mendizaletasunaren modalitate ezberdinak jasotzen dituzte: zeharkaldiak, gailurrak, ferratak, eskalada... Argazki lehiaketa honen helburuak hainbat direla azpimarratzen du Koldo Aranbaerriak. "Alde batetik, Artarrai Mendi Taldeko kideak nondik nora ibili diren ikusteko balio du eta hurrengo oportunitatean bisitatu beharreko mendi-zonalde berriak ezagutzeko oso erabilgarria da. Bestalde, taldearen bloga animatzea nahi dugu (<http://artarrai.blogspot.com>) eta esan beharra dago, uztaitetik hona ia 4.000 bisita jaso ditugula".



'Gure Balioak 2011' sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Debegesak

Debabarreneko eskualdean gizarte-balioak sustatu asmoz, 'Gure Balioak' sariak eskualdeko pertsona edo erakunde baten ibilbidea goraiatzeko xede nagusi. 2010ean sortu zuen Debegesak sari hori, Debabarreneko eskualdean gizarte-balioetan oinarritutako jardunbidea izan duen pertsona edo entitatea publikoki aitortzeko. Iaz Maria Teresa GancheGUI eibartarrari eman zitzaion saria, gizarte balioen arloan egindako lan eskerga nabarmenduz. 'Gure Balioak' sariaren bigarren edizioan, eskualdeko edozein gizarte agentek aurkez dezake hautagaia, herritar, enpresa, elkarte, hezkuntza zein ikerketa zentro edota erakundek. Dena dela, honako baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiak: Debabarrenan jaioa izatea edota bizi edo lan ibilbidea bertan garatu izana, bere balioengatik aipatzekoa den jardunbidea izatea eta eskualdearekin lotura sendoa izatea (www.gurebalioak.com web gunean aurkitu ahal izango dira sariaren gaineko xehetasun guztiak, baita hautagaia aurkezteko bete beharreko inprimakia ere). Hautagaiak aurkezteko epea 2011ko urriaren 7ra arte egongo da zabalik.

'Gure Balioak' saria proiektu oso baten baitan kokatzen da. Debegesa garapen agentziak bultzatuta eta Debabarreneko hainbat herritarrek osatutako plataforma buru duela, 'Gure Balioak' proiektuak Debabarreneko eskualdean gizarte-balioak sustatzea eta eskualde jasangarri eta lehiakor bat lortzeko bidean balioen garrantziaz ohartaraztea du helburu. Proiektu honen aurkezpen ekitaldia irailaren 27an burutu zen eta herri plataforma horretako parte izan nahi duten ermuar eta mallabitarrek 943820110 telefonora dei dezakete.

BERBALAGUNEN IZENA EMATEKO EPEA URRIAREN 28RA ARTE EGONGO DA ZABALIK

Urriaren 20an aurtengo Berbalagun egitasmoaren aurkezpena burutuko da Lobianon eta hilabete bereko 28ra bitartean parte hartu nahi duten euskaldun zaharrek eta berriek izena emateko aukera izango dute (Kaltxango euskaltegian, 943 171 940, 639 414 205 edo ermua_berba@aeek.org helbidean). Euskararen erabilera bultzatzea da ekimen honen helburua eta berbaltaldeen gain, ikastaroak eta irteerak eskaintzen ditu. Urriaren 31n hasiera eman go zaio edizio berriari.

XVIII. JUANITA IBAIBARRIAGA SARIA MARTXAN DA

Juanita Ibaibarraiga Literatur sariaren aurtengo edizioan parte hartu nahi duten idazleek azaroaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren lanak. Urtero bezala bi modalitate egongo dira: LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat eta DBH 3. mailatik aurrerako ikasle zein heldu guztientzat. Horiek ipuin edo narrazio bat eta erreportajea landu beharko dute hurrenez hurren. Lanak Lobiano Kulturagunean edo Komentukua kalean dagoen Euskara Sailean aurkeztu beharko dira. Oinarriak www.ermua.es/eu_index.a sp webgunean.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Ardo banatzailea:

<p>Riedel Avgstvs Clós Mogador Yllera Cantosán Luis Cañas</p>	<p>Hugel&Fills Anima Negra Irache Cillar de Silos Vriego Laurona</p>
---	--

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: **943 17 60 75**

Eskerrik asko txikurizale!!

Aurten ere, **ESKERRRIK ASKO** txikuriko bezero eta laguntzaile guztiei, Euskal Biruseko autofinantziaketari bultzadaxoa ematen laguntzeagatik. Norbait ahazten bazaigu, harek ere eskertuta dauka!

Izagirre sendia, Juan Antonio Izagirre, Unamuno sendia, Naia Unamuno, Isma Pradera, Alberto Belar, Elias Uriarte, Irune Mugerza, Lara Alonso, Tamara Lorente, Unai Rodriguez, Leire Elustondo, Nora Mateos, Maialen Agirregomezkorta, Ane Redondo, Maialen Gomez, Aitor Arrizabalaga, Maitane Egido, Aritz Barruetabeña, Eneritz Arriaga, Ainara Riveras, Gloria Mallea, Lourdes Perosanz, Itziar Unanue, Nieves Garitagoitia, Mari Nieves Arregi, Roge Bouzo, Aroia Lejardi, Laura Agudiña, Aitzol Lejardi, Lorea Txapartegi, Ioritz Rasero, Iker Hidalgo, Ainhoa Cid, Nerea Izagirre, Olatz Mugarza, Iratxe Arrizabalaga, Nora Markos, Txebis Gorritxategi, Idoia Zamakola, Eli Areitioaurte-

na, Jose Karlos Ibaibarriaga, Miren Aja, Oskar Morales, Joseinas Larrañaga, Alazne Aiestaran, Andoni Esmeralda, Piedi Eizagirre, Bea Narbaiza, Idoia Narbaiza, Thomas O'Callaghan, Eli Txurruka, Nerea Berriozabal, Felitxo Araiztegi, Eukene Lamariano, Aitor Ogiza, Arantzi Perosanz, Nora Solozabal, Hiart Redondo, Adei Fernandez, Iban Perez, Gema Arrieta, Juanjo Gorrotxategi, Nerea Izagirre, Leire Uribelarrea, Iratxe Uribelarrea, Esti Arrizabalaga, Goizargi Amesti, Asier Azagirre, Ibaia Azagirre, Itsaso Pradera, Naroa Elordi, Leire Fuensanta, Esteban Goikoe txea, Arantza Cañamares, Iñaki Bidosola, Jokin Txapartegi, Mikel Zabalo, Oier Araiztegi, Gorka Alzaa, Txomin Espilla, Ramón Espilla, Mila Guenetxea, Teresa Garai, Maria Ormaetxea, Iker Saez de Zaitegi, Julen Berriozabal, Begoña Fernández, Iñaki Delgado, Beñat Delgado, Borja Etxeberrria, Julen Garitaonandia, Inazio Fernández, Roberto



Arrarte, Jon Ander Lerin, Asier Galdos, Iker Ganuza, Gorka Biribai, Edu Izarra, Roberto Bilbao, Amaia Orbe, Esti Garcia, Laura Paskual, Ines Arano, Idurre Zuazua, Naiara Gallastegi, Leire Alvarez, Imanol Alvarez, Rober Gonzalez, Mari Karmen Urkidi, Miren Astarloa, M^a Nieves Antxustegi, Maritxu Amillategi, Carmen Solozabal, Aintzane Mallea, Pilar Bilbao, Maitasun Yarza, Nati Yarza, Berta Yarza, Jose Antonio Unanue, Gaizka Areitioaurtena, Nagore Espilla, Igone Amesti, Esti-

balitz González, Nerea Izarra, Dorleta Vidal, Ane Saez, Rosa Jausi, Asier Ibaibarriaga, Manuel Moreno, Markos Gimeno, Anittu-goiko baserria, Leku-Eder Elkarte, patata-tortillak ekarri zizkigutenak, Quetzal arropadenda, Egondo Elektrizitatea, Aitor Garro, Javier Garro, Eskilarapeko Ateneoa, Infreñu Taberna, Txalaparta Taberna, AEK Kaltxango Euskaltegia, Ermuko Santixau Parrokia, Eibarko Unibertsitatea, Mallabiko Udala eta Ermuko Udala.

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

DQ Mouth

Quetzal
 Arropa, bitxiak, opariak... zer ez!
 Goienkale 9 · ERMUA
 943170065

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu antena kolektiboak eta atezain automatikoak instalatzen.

EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa, banda zabala, kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

FERNANDO ALDALUR

- Okiñe ala pastelerue?

Pastelerue. Ogixe be egitten dot esku bat bota biher danielen, baiña ni pastelerue naz.

- Ze ikasketa ein zenduzen?

Oinarrizko ikasketak egin nittun eta gero urtebete egon nintzen komertzial ikasketak egitten. Gurasuek gaixotu zien orduen eta baserrixen geratu nintzen azkenien.

- Noz eta nun hasi zinen okindegixen lanien?

18 urterekin. Eibarren hasi nintzen eta bertan ikesi naban ofizixue. Bederatzi urte egin nittun bertan, gero zazpi Durengon eta oin 22 urte daroiaz Mallabiko okindegixen lanien.

- Zuk zabaldu aurretik baueu okindegirik Mallabixen?

Ez, ordurarte Ermutik edo Durengotik ekartzetan ogixe Mallabire. Ni ta beste baten artien zabaldu gendun lehenengo okindegixe hemen.

- Denboran ziber osagaiyek, makinerixie... aldatzen juen die?

Pastelerixa alorrien alderdi asko aldatzen juen die, baiña nik nahiko tradizional egitten dot bihera, lehengo erara eta lehengo pastelak.

- Ze orduten hasten zara lanien egunero?

Egunaren arabera, gabeko hamarrek-hamaikakaldien hasi eta goixeko



Bost anai-arrebetako azkena da. Jaixotzez Areitixokue baina Durengon bizi da. Ezkondue da eta bi seme daukez. Mallabiko okindegixen egitten dau lan juen dan 22 urtien.

zortzirek edo bederatzixek ingururarte egitten dot normalien lan.

- Oporrak izeten dozuz? Eta nora jueten zara?

Aste Santuen hamar egun eta abuztuen hamabost egun. Normalien hondartzie dauen lekure jueten naz, Mediterraneo zein Kanarietara.

- Zer estimatzen dozu gehixen eta zer gutxien lan honetan?

Lana bera gustoko dot, politte da. Ordutegixe da dauken gauzarik txarrena. 29 urte daroiaz honezkero gabaz lan egitten.

- Gustoko dozu mostradore atzeko lana?

Bai, pilo bat gustatzen jata. Gustora egoten naz jentiakin berbetan.

- Zelakue da Mallabiko bezerue?

Jatorra eta fidela orokorrien.

- Gazixe ala gozue?

Gazixe.

- Zer gosaltzen dozu?

Nire etxien bestiek afaltzen dabena gosaltzen dot. Lanera sartu aurretik ohetik jeikitzen naz eta nere andre eta semiek afaltzen dabena izeten da nire armosue.

- Trebie zara etxeko sukaldien?

Kapritxuek egitteko bai. Labako gauzak neuk egitten dittut normalien, eta ondo egitten dittutela esaten dabe gainera!

- Zerk ateratzen zaitu zue-re onetik?

Ez naz errez hasarretzen, baiña haserretzen naze-netan adiskidetzkie kostatzen jata.

- Zerk eragitten dotzu barrie?

Jentiakin bromak egittie gustatzen jata, apur bat zirikatu eta ondo pasatzie.

- Zer miresten dozu pertsona batengan?

Faltsue ez izetie, pertsona zintzue. Malisixa bakue.

- Zer egitten dozu zure aisaldixen?

Kirola, hondartzie... gusatzen jataz. Goixetan biherretik urtetzerakuen beti aprobetxatzen dot mendire buelta bat emon, ibilli edo squasien aritzeko.

- Zer da egunero kale egin barik egitten dozun hori?

Kirol apur bat eta eguerdiko pare bat txikito.

- Zozer egin ez izanan penie dukezu?

Ez, baina barriro 18 urte baneukez ordutegi hobie dauken ofizio bat aukeratu neuke.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre


SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Infreñu
Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!
 Egokitutako burua
garbitzeko konketa
943 17 28 09 • Goienkale 12

Mallabiko Igor Egurrola, Euskal Herriko Team Penningeko irabazle: “Ohitura txarrak eta akatsak kentzie ez da erraza”

Igorrek 31 urte ditu. Nahiz eta biherria Oizeko eolikue-tan ein, bere pasinue zaldixek die.

- Nundik datortzu zaldixekiko afiziñue?

Aittangandik. Berai beti gustau ixen jakoz. Hasierako zaldixok okelarakuek zien, baina nire burugogorkerixaz, oin dala 20 urte lortu neban lehenego monturazko zaldixe.

- Eta oin, zenbat zaldi deukezue?

Oin arte zazpi auki doguz, baina larregi ziela eta laurekin gatu gara. Dedikaziño haundixe eskatzen dabe: egunero jaten dabe eta mantetzie be garestixe da.

- Zeure konture ikesi zenuen zaldixen ibiltten?

Bai, holantxik hasi nintzen, neure erara. Kontue zaldittik ez jaustie zan...

- ...eta hortik, Western-eko lehiaketetan parte hartze-ra?

Bartzelonan deskubridu genduen Team Penning modalidadie. Modalidade honetan behixekin jolasten ebela jakin genduen, eta probak egitten, azkenien, gustau egin jakun. 5 urte die honetan hasi nintzenetik. Tartien, Bartzelonara jueten gara teknika ikastaruek hartzera, izen be, geure konture ikestian ondorixuek be bada-goz... Ohitura txarrak eta

akatsak kentzie ez da erreza.

- Zertan datza Team Penningak?

Taldeka jokutzen dogu, talde bakotxien hiru lagun batzen gara. 60 x 35 m.ko eremue da gure biherrerako espazixue. Bertan baztar baten korta txiki modoko bat dago. Eremuan beste aldien 21 behi lagatzen dittue. Behixok 1etik 7ra arteko numeruek dittue. Hau da, zenbaki bereko hiru behi dagoz bertan. Epailiek, urteerako seiñalia-kin batera, behixen numerue jakinarazten dosku. Holan, zaldixkuok 90 segunduten hiru behixok atara eta kortara sartu biher doguz. Hori da jokue!


- Holan azaldute, gatxa emoten dau...

Aukerie be badau denborie geratzeko... Ezer baino hobie da bi behi sartu eta denborie geratzie. Hori bai, egitten dana egitten dala, behixek ezin doguz ikutu, zaldixe ezin da jo, janzkerie be reglamentarixue da... gauza askok puntuau edo penaulizau egitten dabe, arau asko dagoz.

- Parte hartzeko taldiek beti berberak die?

Ez, ez. Bost ekipotik, bi norberak elegidutekuek die eta beste hirurek sorteora egitten die.

- Otxandixon ospatu zan Euskal Herriko txapelketan 1. sarixe lortu zenduen!



Bai. Nire taldiek 87 segunduko markie egin eban, bi denborak batute; hau da hiru behi 35 segunduen eta beste hirurek 52xen.

- Elkarte bat be sortu dozue ezta? Zenbat partaide zarie?

Bai, 3 urte die Euskal Western Elkartea sortu gendule. Elkartiaz westerra sustatu eta afiziñue sortzie nahi dogu. Honetaz gain, gure formaziñorako ikastaruek antolatzi-az gain, administraziño eta lehiaketan antolakuntzan laguntzie eskaintzen dau. 34

bat laguniek osatzen dogu elkartie; aipatzekue da gure artien daukegun girue ezin hobie dala!

- Western-an inguruko informaziño gehixau nahi dabenak, nora jo leike?

www.euskalwesternelkar-tea.com izeneko webgunie daukegu martxan. Honetaz gain, Youtube atarixen ‘Western Otxandiox’ edo ‘Western Zaldibar’ jarriz gero, bidixuek ikusteko aukerie be badaukezue.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Mallabitik Santiagora erromesaldia

Udako oporraldian aukera asko izaten da eta horietako bat Santiagoko erromesaldia egitearena da. Hala egitea erabaki zuen ekainean Mallabiko lagun koadrila batek eta 13 etapa eta 800 kilometro bizikletaz burutu ostean, abuztuaren 19an iritsi ziren Santiagora. Asier Azagirre, Ibon Zubiate, Zorion Alberdi, Iban Ugartetxea, Igor Olalde eta Alex Perezek osatu dute taldea.

- Nola erabaki zenuten Santiagoko erromesaldia egitea?

Bastida tabernan atera zen kontua. Uda gerturatzen ari zen eta poteoan ari ginela elkar xaxatu eta animatu genuen.

- Orreaga aldetik atera zineten...

Behar ziren gauzak hartu eta abuztuaren 7an abiatu ginen. 'Frantziako bidea' deritzona egin genuen.

- Zer moduz lehenengo egunak?

Egunik gogorrenak horiek izan ziren. Gorputza egokitzea, bero handia, errepide-

ak ere egia esan, ez ziren oso onak. Burgosetik Leon bitarteko lautadak oso luze egin zitzaizkigun.

- Batez beste zenbat kilometro egin zenituzten?

Etaparik luzeenak 90 kilometro inguru zituen. Azken etapak adibidez, 34 soilik. Batez beste 65-70 kilometro inguru egiten genituen.

- Iratxe Uribelarrea eta Ainhoa Mallabi ere izan dira zuekin.

2-3 etapa egitera etorri ziren eta Errioxa ingurura arte izan ziren gurekin.

- Egun arunt batean zer

egiten zenuten?

Goizero 7ak aldera esnatu, gauzak prestatu eta hamai-ketakoa egiteko tarte hartzen genuen. Ostean, kilometro batzuk egin, bazkaldu, siestarako tartetxo bat hartu eta arratsaldean etaparen zatirik handiena egiten genuen. Iluntzean aterpera iristen ginen.

- Oinezkoak ere ikusiko zenituzten...

Denetarik ikusi genuen. Bi hanka ortopedikoak zituen gizon bat, zaldiz, karretillan, era guztietako ibiltariak. Japoniarrak lepo, italiarrak, katalanak... euskaldun batzuk ere bai tartean. Bakarrik zihoan jende asko ere. Oinez egitea oso gogorra da. Askok ikusi genituen ezinean, hantekako minez. Haiekin bat egitean 'Buen camino' esaten genien, hala agintzen baitu tradizioak.

- Zer moduz dago antolatuta?

Ez dago galtzerik. Dena oso ondo adierazita dago eta interneten ere informazio asko dago. Horrez gain, lo egiteko lekuak oso prezio onean daude eta ohiko aterpetxez gain, ostatuak ere badira. Erosketak egiteko ere aukera badago.

- Arazorik izan zenuten?

Bizikletek ere mekanikoki

neke handia hartu zuten. Hauts asko zegoen ibilbidean. Katea, alforjak eta pedala ere puskatu zitzaizkigun batzuei baina konpontzea lortu genuen eta oro har ondo joan zen dena. Osasuna ere lagun, gure artean oso giro ona izan genuen.

- Santiagora heltzea nolako izan zen?

Santiagora iritsi bitartean oso herri txikiak igaro genituen. Galiziarako sarrera oinez egin behar izan genuen jendez gainezka baitzegoen errepidea. Santiago guztiz turistikoa da eta jende andana topatu genuen.

- Amaitzean ospakizunik egin zenuten?

Mariskada egin genuen Albariño ederra lagun hartuta.

- Argazki bilduma ere egin duzue...

Oso leku ederrak igaro ditugu eta bilduma eginez, hemendik urte batzuetara, igarotako egunak gogoraraziko ditugu.

- Aurrera begira zein asmo?

Datorren urterako ere zer edo zer pentsatzen hasi gara. Oso esperientzia polita izan da.

- Merez du beraz...

Jendea animatu nahi genuke. Fedea edo beste edozein aitzakia dela, oso esperientzia aberatsa da. Jendea ezagutzen duzu, eguneroko ahaleginak merezi du eta herri eta paraje ederrak ikusteko aukera eskaintzen ditu.

Asier Ibaibarriaga




CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

Trena berriz ere martxan jartzen denean

Iritsi da udazkena. Gehienok aspalditik gara bueltan. Bartzuk heldu berriak egongo zarete eta gutxiengo bat oporrak hartzeko ezer gutxi falta zaizuela. Lehenago edo beranduxeago, hala ere, egunerokora bueltatzea tokatzen da. "Amaitu dira. Errutinara buelta!!" izaten da gutako askok gure artean elkarri esaten diogun esaldi aski ezaguna.

Bai, halaxe da. Oporrak normalean atseginak izaten dira. Trenaren geldialdia. Funtsean, atsedena hartzeko eta egunerokoan gustuko eta maiz egiten ez ditudan horiek egi bihurtzeko erabiltzen ditut nik. Normalean naturan gehiagogo egoten eta honekin estuago harremanatzen eta batzen saiatzen naiz eta txoko berrien bat deskubritzeko ere aprobeztatzen dut. Batzuetan aspaldian ikusi bako lagunak bisitatzea ere erabakitzen dut.

Geldialdiak barne gogoetarako aukera ere oso modu atseginean eskaintzen dit eta ohore handiz onartu izan ohi

dut normalean gonbidapena. Oporretan nagoela, nahi barrik, ondo eta gaizki egindakoez, emandakoaz, jasotakoaz, ikasitakoaz, aldatzen ari denaz, aldatu nahi dudana, ametsez, horiekin guztiekin topo egiten dut sakonean. Norbera den horrekin bat egitea oporren barne eta kanpo patxadan errazago egiten zaidan ariketa da eta zinez eskertzen dut.

Trena berriz ere martxan jartzen deneko eguneroko erritmora egokitze hori gorabeheratsua izatea normala da. Bakoitzak bere denbora behar du. Norberaren bizitza momentuaren arabera, kontzienteki edo ez aukeratu dugunaren arabera, jakin barik etorriko zaigunaren arabera. Bizitzak aurrera darrai momentu oro eta ugariak dira gehiagotan, gutxiagotan, finean, gelditu barik aurrean ipintzen digun erronka sorta. Bartzuk erraz egingo ditugu, konturatu barik, di-da batean. Beste bartzuk, ordea, gogorra goak, mingarriak egingo zaiz-



Ainara Riveras

kigu eta denbora gehiago pasa beharko dugu horiekin bidean.

Hortaz, bizi gogoia eta bizi ahalmena amatatu ez daitezten, datorrena onartzen, konprenitzen eta ikasten saiatuko naiz beste behin ere. Ilusioa, gogoia eta animoa mantentzen, bihotzaren melodiak diostana entzuten eta gehienetan hain desiratua izan ohi den geldialdian asetzen nauten horiek egunerokoan ez ahazten eta egiten saiatuko naiz gogotsu beste behin ere.

Bidaia ederra, sakona eta argiz bete izan dezazuela eta hurrengo geldialdira arte. Izan zoriontsu!!

Bizitzak aurrera darrai momentu oro eta gelditu barik erronka sorta ipintzen digu aurrean

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



Irailaren 4an
Zorionak Unax zure 6. urtebetetzean eta musu handi bat aita, ama eta Maulen partez.



Irailaren 30ean
Zorionak aitxitxa! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat.



Urriaren 1ean
Zorionak Udane zure bigarren urtebetetzean. Muxu asko etxekoan partez.



Irailaren 30ean
Zorionak Kaiet eta amatxo! Oso ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Pastelen zain egongo naiz! Muxu bana aitaren partez.



Irailaren 10ean eta 15ean
Zorionak Peru eta amatxo eta musu handi bana etxeko guztion partez.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).
Hurrengo zenbakirako azken eguna:
URRIAREN 17a



Urriaren 7an
Zorionak Noe eta Miguel laster ezkonduko zaretelako. Zorionsu izaten jarraitzea opa dizuegu zure lagunok. Elkarrekin ospatuko dugu zuen egunean.

Artarrai Mendi Taldeak ETB2ko 'El Aconcagua: La Aventura' programaren grabaketa ikustera joateko gonbitea egin nahi dio interesa duen orori. EITBk autobusa ipiniko du dohainik urriaren 17an, astelehenean, 20.00etan Agirre Kirolak. Donostiako Miramon estudioetara heldu eta gero, harrera eta lancha egongo da. Programa 22.00etan hasiko da eta 23.45ean bukatu egingo da (1.00etarako, beraz, Ermuan egotea aurreikusten da). Interesa dutenek aldeztatik eman beharko dute izena (artarrai@euskalnet.net helbidera mezua bidali edo 638050634 telefonora deitu).



ARTARRAI
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA
1981**

Argazki hau Mallabiko frontoian aterata dago 1981 urte inguruan. Bertan agertzen diren dantzariak dira (aurretik atzera):

Lorea Arregi,
Nekane Mallabiabarrena,
Rosa M^a Moreno,
Idoia Garitagoitia,
Aintzane Arregi
eta Goreti Txurruka.

**ERMUA
1983**

Argazki hau 1983-1984. ikasturtekoa da eta 5. mailako ikasleei aterata dago Santa Anan. Bertan agertzen dira (ezkerritik eskumara):
Goian: Sonia Gil, Aintzane Bidosola, Nerea Apiri, Leire Irazu, Ainhoa Martínez, Araitz Aja eta Nerea Azpiri.
Behean: Maite Bravo, Zalao Astola, Isa González, Amaia Yarza eta Arantzi Perosanz.

* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tif: 943173312

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Otsailaren amaieran Ermua Antzokia inauguratu zen eta harrezkero 'zinemarako bonuak' eskuratzeko aukera dute ermuarrek hilero. Horri esker, pelikula bakoitza euro batean ikus daiteke eta hilabeteak duen asteburu kopuruaren arabera, bonuaren prezioa aldatu egiten da.

Bonuaren funtzionamendua ezagutzen duzu?

Ez dakit asko bonuari buruz, oso informazio gutxi heldu zait. Lagun batek zer-bait azaldu zidan: bonua erosi behar dela eta horrekin film guztiak ikus daitezkeela. Diru aldetik nahiko ondo dagoela uste dut baina nik ez dut erabiltzen. Agian, iraungitze-datarik izango ez balu erosiko nuke.



Loli Utrera, 37 urte



Jose Santos, 41 urte

Bonua erosten baduzu, hilabete horretako pelikula guztiak merkeago ikusteko aukera daukazu. Egia esan ez zait ideia egokia iruditzen, bonua errentagarri izateko pelikula guzti-guztiak ikusi behar dituzulako. Niri, ez naizenez askotan zinera joaten, ez dit merezi. Zineko sarrerak merkeago saltzea litzateke hobereana.



Ez dut bonuaren funtzionamendua ezagutzen, ez baitaukat informazio nahikorik, baina errentagarri irtengo balitz lasai asko erosiko nuke.

Maitane Narbaiza, 19 urte

Ez dakit nola funtzionatzen duen, zinera gutxitan joaten bainaiz eta gainera informazio gutxi jaso dut. Bonoaren funtzionamendua zein den jakin ez arren, zinera joatea gustatzen zaien pertsonentzat errentagarria delakoan nago. Nik ez dut bonua erabiltzeko asmorik.



Antonio Contador, 39 urte

10 euro ordainduz gero, bono horrek hilean 10 pelikulez gozatzeko aukera ematen duela uste dut. Zinera askotan joaten direnentzat ideia ezin hobea da, baina gainontzekoentzat ez. Nik, esaterako, ez dut bonoa erabiltzen. Izan ere, antzokia zabaldu zenetik behin bakarrik joan naiz.



Lorena Arias, 17 urte



Ander Prol, 18 urte

Bonoak 10€ko prezioa du hilero eta horrekin 15 pelikula ikus daitezkeela uste dut. Ideia ona delakoan nagoen arren, antzerkia ere bonuaren barruan sartu beharko litzateke, pertsona gehiagok antzokiaz gozatzeko aukera izateko. Nik ez dut bonoa erosten ez naizelako pelikulak ikustera askotan joaten. Ez zait errentagarria iruditzen.

Leire Elustondo eta Nora Mateos

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

- Laguntza-eskolak.
- Ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Ume eta helduentzat.

...matrikula zabalik!

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA



Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZINEA**1etik 3ra:**

'Super 8' +
'El origen del planeta
de los simios'

8tik 10era:

'Cowboys & Aliens'
+ 'Colombiana'

15etik 17ra:

'Noche de miedo 3D'
+ 'Arriya'

22tik 24ra:

'La piel que habito'
+ 'Cómo acabar
con tu jefe'

29tik 31ra:

'No habrá paz
para los malvados' +
'Los amos
de Brooklyn'

Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

ZINE-KLUBA**Hilak 6:**

'Black heaven'

Hilak 13:

'Una jornada particular'

Hilak 20:

'Mammuth'

Hilak 27:

'Cairo 678'

20.30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 3€

**UMEENTZAKO
ZINEA****Hilak 2:**

'Los Pitufos 3D'

Hilak 9:

'Harrietty y el mundo
de los diminutos'

Hilak 16:

'Phineas y Ferb'

Hilak 23:

'Animals United 3D'

Hilak 30:

'Los pingüinos
del Sr. Popper'

17.00etan.
Ermua Antzokian.

ANTZERKIA**Hilak 7:**

'Lotsa-gabe',
Vaiven Produkzioak.
22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8€

**Hilak 14:**

'Sensormen'.
Yllana taldea.
22.15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

**UMEENTZAKO
ANTZERKIA****Hilak 8:**

'...y la leyenda de
Maese Pérez el
organista'.
Ymedio Teatro.
17.00etan. Antzokian.
Sarrera: 4€

Hilak 22:

'Juan Sinmiedo'.
Egos Petits taldea.
17.00etan. Antzokian.
Sarrera: 4€

MUSIKA**Hilak 15:**

Jazz-blues kontzertua:
Yoio Cuesta.
20.00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 8€

Hilak 21:

Kontzertua. Cre.art
ensemble. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8€

Hilak 28:

Kontzertua: The Grafitti
Classics. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilak 29:

Kalejira: Ermuan
kantuan. 12.30ean.
Orbe Kardinalaren
plazan hasita.

ERAKUSKETAK**Hilaren 2tik 16ra:**

Argazki erakusketa:
'Un viaje al corazón
de Los Andes'.

Hilaren 17tik 30era:

Margoak: Ignacio
Ruiz de Arkaute.

Lanegunetan
18.00etatik
20.00etara.
Asteburuetan
12.00etatik
14.00etara eta
18.00etatik
20.00etara.
Lobiano
Kultur Gunean.

BESTELAKOAK**Hilak 1:**

Enpanadaren jaia:
hainbat ekitaldi.
11.00etatik. Orbe
Kardinalaren plazan.

Hilaren 20tik 22ra:

Mikologiari buruzko
jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.

Hilak 22:

Motordunen jaia:
hainbat ekitaldi.
16.00etatik.
Probalekuan.

Patxi López

Harategia**M. LAZKANO**

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

**OPTICA
J. CASADO**

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

**MIGUEL
Harategia**

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

**hamburguesería
TITANIK**

*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

konekta-T



2011 - 2012

IKASTURTEA

HELBURUAK

- Moduluak: euskalduntzea, alfabetatzea, HABEko 1., 2. eta 3. maila, EGA, Hizkuntza Eskakizunak...

ERRITMOAK

- Hamar ordu astean, astelehenetik ostegunera.
- Goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko ordutegiak.
- Kurtsoaren iraupena: urritik ekainera.
- Talde bereziak.

HARREMANAK

- 16 urtetik gorakoentzat.

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga eraikina
Goienkale z/g, 2. solairua 48260 - ERMUA

Tel. eta faxa: **943 17 09 25**
euskaltegia@udalermua.net

M A T R I K U L A Z A B A L I K

Diru-laguntzak



UGARRO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44
Faxa. 943 17 54 58

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

Matrikula zabalik



eman izena

Ermuko Kaltxango AEK

943 17 19 40

kaltxango@aek.org

Euskaltegi homologatua

Ordutegi zabala

Maila guztiak

Gurasoei zuzendutako ikastaroa

Autoikaskuntza

IVAP-IRALE

Mintzapraktika-berbalagun

Diruz lagundua

Euskaltegi homologado

Horario flexible

Todos los niveles

Curso para padres-madres

Autoaprendizaje

IVAP-IRALE

Mintzapraktika-berbalagun

Cursos subvencionados

www.aek.org
902 362 294

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre